



35. ZUREA ETA NIREA, HASERRETZEKO ESKUBIDEA

0. AZALA

Azala zure haurrekin lantzeko, honako estrategi hauek erabil ditzakezu:

- Eskaini haurrari azala, eta galdetu ea nola ikusten duen gure laguntzua: haserre, triste, pozik...
Proposamen horren helburua da aurpegi eta gorpuzkera horretan adierazten dena dezifratzeko edo identifikatzeko gai ote den jakitea.
- Behin emozioa dezifratu duela, galdetu zergatik ote dagoen haserre. Bota ditzala ideiak eta eman diezaioa bide askea imajinazioari.
- Ondoren, galdetu ea badakien zer esan nahi duen hor ageri den esaldiak: “Zurea eta nirea, haserretzeko eskubidea”. Ez badu ulertzen, azaldu zure hitzekin, eta erabili ahal duzun eta adibiderik ulerkorrenak.
- Azkenik, galdetu ea zer sentitzen duen haserretzen denean, haserretzea gogoko ote duen, haserretzea ondo ote dagoen...

1. UDAKO TOPAKETAK

Udako topaketen orria, kolore askoz osaturik dago. Kolore horiekin jolas dezakezue:

- Lehenik eta behin, eskatu izenburua irakurtzeko. Ondoren, azal dezala zer informazio eman ahal digun. Hark iritzia eman eta gero, azaldu zeurea.
- Ondoren, hasi bion artean lasai irakurtzen.
- Hasi zu zeu irakurtzen, eta esan haurrari letraren kolorea aldatzen den momentuan bera hasi beharko dela irakurtzen.
- Saltokako irakurketa bukatu eta gero, galdetu udako topaketatik zein ekintza izan duen gogokoena, eta eskaini tartetxo bat horretaz hitz egiteko.



35. ZUREA ETA NIREA,
HASERRETZEKO
ESKUBIDEA

2. PUPU ETA LORE

Gure umetxoek komikia irakurtzeko, estrategia erraz askoa proposatzen dizugu. Hala ere, gogoratu, zuri zerbait interesgarriagoa bururatzen bazaizu, bidea libre duzula!

- Irakurri bion artean komikia.
- Komiki zatitxo bakoitza ondo uler dezan, azaldu esaldian adierazten dena adibide erraz batekin.
- Esaldietan, ezezagunak gertatuko zaizkio hitz asko; beraz, saiatu horiek ahal bezain modurik errazenean azaltzen.

3. PIRRI TX, PORRO TX ETA MARIMOTOTS

Nola irakurtzea gustatuko litzaizuke zuri istorio hau, lehenengo irudiei begiratuta eta ondoren istorioa irakurrita? Edo hitzak irakurrita, irudiari begiratu? Bakarrik ala bion artean?

Gure partetik, oraingo honetan, zuri utzi nahi dizugu aukera, beste irakurketa era bati bideak irekitzeko. Kontuan izan, ez dagoela irakurtzeko modu bakarra, eta seguru gaude, zeuk aukeratzen duzun hori, egokia izango dela irakurzaletasuna pizteko! Beraz, aurrera!

4. OSASUNA GURE ONDASUNA

Tiritatxo beti datorkigu aholku onekin. Oraingoan ere, horiek irakurtzea gomendatzen dizuegu. Irakurketa nahi duzun bezala egin dezakezue!

Ondoren, aurreko orriko marrazkian, Tiritatxok ematen dizkigun aholkuetatik zeintzuk ikusten dituzuen identifikatu beharko duzue.

Irudiari behatu eta lanketa egin eta gero, hauxe egitea aholkatzen dizuegu:

- Astea behin, aholku horietako bat bete beharko duzue; adibidez: aste batean, oinez joango zarete eskolara. Hurrengo astean, ariketa fisikoa egin beharko duzue...

Seguru gaude buruzpide hauek bizitza osasuntsuago baten txertatzen lagunduko dizuetela! Aurrera ba!



35. ZUREA ETA NIREA,
HASERRETZEKO
ESKUBIDEA

5. ELEFANTE BAT HEGAN

Animatu nahi zaitugu ipuintxo hau zeuk irakurtzera hari. Irakurketa, hala ere, ez da edonolako izan beharko, ez horixe. Horretarako, irakurraldia prestatzea proposatzen dizugu. Nola?

1. Irakurri testua, behin eta berriz.
2. Ulertu ondo testua.
3. Gure proposamenak:
 - Aukeratu gaiarekin zerikusia izan dezakeen ahots doinu egokia.
 - Hornitu eta apaindu behar bezala logela, egongela edo dena delakoa, irakurraldirako.
 - Aukeratu argi egokiak.
 - Irakurraldian, pentsatu soinuak erabiliko ote dituzun.
 - ...
4. EKIN IRAKURRALDIARI ilusioz eta gogoz!

6. IRRIEN LAGUNAK

Orri honetan, informazio interesgarria eskaintzen digute gure lagunek. Hona gure proposamena:

- Hiru testutxo daude.
- Esan haurrari hiru horietatik bat aukeratzeko.
- Behin aukeraturik, esan behin eta berriz irakurri beharko duela ondo irakurtzea lortu arte. Zergatik? Bada, zure aurrean irakurralditxo bat egin beharko duelako!
- Notizia interesgarri bat irakurtzen arituko balitz bezala irakurriko du. Beraz, doinu eta ahots egokiak erabili beharko ditu.
- Berak egin aurretik, egokia izan daiteke lehenik eta behin zuk zeuk egitea.



35. ZUREA ETA NIREA,
HASERRETZEKO
ESKUBIDEA

7. DON DONA KATONA

Ataltxo hau irakurtzeko eta haurra bertan adierazten dena irakurtzera motibatzeko, irakurri bion artean goiko izenburuaren azpian jartzen duena: 'Irrienlagunak.com' webguneko zozketen txokoa!, eta ondoren, galdetu haurrari ea zeri buruz idatzi ahal diguten.

Ikusiko duzue, alde batetik, zozketaren irabazlearen izena eta bere argazkia ageri direla eta, beste alde batetik, Irriklik aplikazioa webgunetik deskargatuz lor dezakezuen opariari buruzko informazioa eskaintzen duela.

Zuen esku uzten dugu orri honetan gero zer egin dezakezuen!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Lehenik eta behin, hartu bertso bakoitzak duen izenburua eta idatzi bakoitza orri zuri batean. Izenburu bakoitzaren azpian, utzi zatitxo bat marrazki txiki bat egiteko modukoa, eta honako puntu hauetan zehaztuko dugu zer egitea proposatzen dugun gero:

- Idatzi izenburu bat; adibidez: Haserrearen hortzak.
- Gero, galdetu haurrari: nola jartzen dira haserrearen hortzak?
- Ondoren, egin bien artean irudi bat haserrearen hortzak aintzat izanik.
- Izenburu guztiekin egin ondoren, irakurri goitik behera, nahi duzuen bezala!

9. LAGUN

Galdetu haurrari eguneko edozein momentutan:

- "Badakizu zer gertatu zaion Laguni?"
- "Badakizu nor den Gaua?"

Gutiz garrantzitsuak izaten dira komikia irakurri aurretiko galdera hauek. Izan ere, horrela, haurrak komikiarekiko irrika izatea eta jakin mina piztea lortuko duzu, eta, beraz, haren jarrera positiboa izango da komikia irakurtzen hasi aurretik.



35. ZUREA ETA NIREA,
HASERRETZEKO
ESKUBIDEA

10. ERLEA

Egun pasa bat egitekotan zarete? Ziur baietz! Animatu zuen hurrekin erlategi bat ikustera!

Hauxe da gure proposamena: erlategira joan aurretik, Irrien Lagunek erleen inguruan eskaintzen dizkiguten datuak irakurtzea. Gero, irakurketa amaitzean, haurrari ezusteko bikain bat ematea proposatzen dugu. Badakizu zein den ezustekoa, ezta? Animatu!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Oraingo honetan, antzerkitxo bat egitera animatzen zaituztegu, lotsak alde batera utzita!

- Hiru pertsona behar dituzue.

- Protagonistak, Peru pertsonaia antzeztuko du, eta beste biek Xerri eta Mokofin.

Amaitzean, komikiaren bukaera ageri den galderari erantzuten saiatzea proposatzen dugu: "Urduri jartzen naute, gertuegi daudelako ala urrutiegi daudelako?".

12. MARTIN BERTSO

Askotan gertatu ohi da, testu edo esaldi bat irakurri eta ez ulertzea. Kasu hauetan, hainbat estrategia erabiltzen ditugu: esaldia berriro irakurtzea, testua osoki irakurtzea, irudietan erreparatzea... Oraingo honetan, gure proposamena da testua alde batera utzi eta, irudietan erreparatuz, zuen istorioa sortzea. Gustatuko zaizue!!

13. MARIKALANBRE

Marikalanbrek hilerio eskaintzen dizkigun esperimenduekin liburuxka bat sortzeko animatuta?

- Lehenik eta behin, irakurri lasai-lasai Marikalanbrei zer gertatzen zaion.
- Gero, esperimendua egin dezakezue.
- Eta, amaitzeko, idatzi orri batean zer esperimendu egin duzuen eta gorde karpeta batean.

14. LARGABISTA

"Irakurri eta ikusi!" atalaren harira, animatu zaitezte benetako zedro bat ikustera; izan ere, ongi dakizue ez dela berdina izaten zerbait irudietan ikustea edo aurrez aurre ikustea! Eguna hautatzean, hartu aldizkaria eta motxila aldean, eta joan zaitezte benetako zedro zorigarri bat ikustera! Haurrari izugarri gustatuko zaio, eta zuet ere bai!



35. ZUREA ETA NIREA,
HASERRETZEKO
ESKUBIDEA

15. ZENBATAK

Irakurri ezazue komikia isilean. Komikia irakurri ondoren, utzi tartetxo bat, eta, gero, haurrak ezer jakin gabe, antzeztu Zenbaten gertaera antzeko bat. Antzezpenaren ondoren, galdetu haurrari: “Zer deritzozu gertatu denaren inguruan?”.

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Oraingo honetan ere, ez da atzean gelditzen Patakon. Irakurri haurrari komikia oheratzean, lasai-lasai. Komikia irakurtzez amaitzean, esaiozu haurrari hurrengo egunean ordenagailuan ikusiko duzuela Patakonek kontatutako istorioan ageri diren lekuak, haurrak...

Horretaz gainera, bada bestelako proposamen bat. Ikusi duzue Patakon nola hasi den haurrari istorioa kontatzen, bere elastikoan herrialdearen izena zuen idatzirik. Animatu zaitezte zuek ere Patakonek egin duena egitera! Idatzi horri batean nahi duzun hitz bat eta jarri elastikoan itsatsirik, haurraren gana joan aurretik noski. Ziur zerbait galdetuko dizula!

17. IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Hona gure proposamena:

- Hautatu hitz batzuk eta idatzi orri zati txikietan.
- Tolestu horri zatiak.
- Gero, banan bana, hartu orri zatiak, eta irakurri zer jartzen duen.
- Irakurri bezain pronto, orrialdean aurkitu beharko duzue hitza. Ea nor den bizkorrena.